

tzen direnei laguntza eskatu nahi diete. Ikerketan parte hartu nahi duten zinemazaleek email bat bidali beharko dute *bagera@bagera.net* helbidera ikusi eta entzun dutena kontatuz. Arreta berezia jarri beharko dute langileek zer hizkuntza erabiltzen duten (ea euskara lehen hizkuntza bezala erabiltzen duten ala ez, edota, nahiz eta lehenengo aukera bezala ez erabili, euskaraz badakiten), baita filmen ezaugarri ere (hizkuntza

«Hutsunerik nabariena da inbertsio oso txikia egiten dela eta, horren ondorioz, euskarak mugak izaten dituela jaialdi hauetan», aipatu du Zuriñe Gonzalez Bagera elkarteko kideak

«Zinemaldia» egunkarian argitaratzen diren euskarazko edukiak gaztelerazkoekin eta ingelesazkoekin parekatzea proposatzen du Donostiako euskara elkarteak



eta azpitoluak). Film horren aurretik edo ostean aurkezpen edo solasaldirik izanez gero, interesgarria litzateke aipatzea zein hizkuntzatan mintzatu diren eta ea euskarazko itzulpenik egin den, edota euskarari zer nolako garrantzia eman zaion.

«LOREAK» SAIL OFIZIALEAN

Aipatutako gomendioez gain, beste hainbat ere eman ditu elkarteak txostenean: sailen izenen arteko oreka mantentzea euskarazkoa bermatuz; jaialdiaren inguruan dauden iragarle anitzei Donostiako egoera linguistikoa azaltzea eta euskara normaltasun osoz erabiltzera animatzea; eta aurreko urteko euskarazko pelikulen kopurua handitzea.

Honen harira, Bageraren txostenak bi alderdi positibo azpimarratzen ditu. Lehenik, iaz Kontseiluaren ekimenez sortu zen euskarazko film laburren lehiaketa aurten ere programatu izana eta, gainera, egitarau ofizialetan gehitu izana “Euskaraz Bizi Nahi Dut” dinamikarekin bat eginez. «Nahiz eta egitarau ofizialean sartu, iruditzen zaigu lehiaketako filmak oso euskaldunak direnentzat besterik ez direla gelditzen, hau da, ez zaizkiola publiko orokorrari iristen», iritzi dio Bagerako kideak.

Beste alde batetik, Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak zuzenduriko “Loreak” pelikula, euskaraz errodaturikoa, Sail Ofizialean Urrezko Maskorra lortzeko lehiatuko da. Lehen aldia da euskarazko film bat sail gorenean dagoena. «Film hori zabaldu egingo da, eta gure helburua da euskara edonon normaltasun osoz aurkitzea. Film hori Sail Ofizialean egoteak garrantzia emango dio hizkuntzari», esan zuen.

“Loreak” euskaraz eskainiko dute gaztelerazko azpitoluekin eta ingelesezko azpitolu elektronikoekin. Irailaren 23an 9:00etan eta 22:00etan ikusi ahal izango da Kursaal aretoan; hilaren 24an, 18:15ean Victoria Eugenia antzokian, eta 25ean, 23:15ean Antiguo Berri zinema aretoan.



«Dixie eta matxinada zontia» euskarazko filmaren irudi bat. ABRA PROD

ANIMAZIOZKO FILMETAN ETA HAURRENTZAT DIRENETAN, EUSKARA GEHIAGO

“Loreak” Zinemaldiaren historian Sail Ofizialean euskara hutsean eskaintzen den lehenengo filma izango da. Moriarti Produkzioak ekoizpen-etxe gipuzkoarrean landutako lana da, aurretik publikoarentzat kuttunak izan diren bestelako filmak egin dituen (“80 egunean”, “El método Arrieta”...). Horregatik, publikoaren interesa piztu du eta sarrerak azkar ari da saltzen. Sail Ofizialean euskarazko zinemaz gozatu nahi duenak aukera gehiago dauzka. Arreta eman duen euskal ekoizpeneko beste pelikula bat Pablo Maloren “Lasa eta Zabala” da, euskara eta gaztelera tartekatzen dituen.

Alde batetik, Moriarti Produkzioak ekoizpen-etxeak jaialdian aurkeztuko duen beste filma dugu (laburra, kasu honetan), “Zarautzen erosi zuen”, Zabaltegi sailekoa (irailaren 20, 21, 22, 26 eta 27an ikusi ahal izango da hiriko hainbat zinema aretotan). Sail berean, Koldo Almandozen “Hubert Le Blonen azken hegaldia” animaziozko film laburra dago. Azken hori irailaren 21an, 22an, 23an, 24an eta 27an eskainiko dute beste film batzuei lagunduz. Belodromoan “Dixie eta matxinada zontia” euskarazko animazioa eskainiko dute irailaren 21ean 18:00etan. “Friends: Mononokeshima no Naki” lanaren itzulpena ikusteko, berriz, aukera gehiago izango dira (19an, 22an bi saio, 23an, 24an, 25ean eta 26an).

Euskara hutsean eskainiko dituzten gainontzeko filmak haurrentzako zinemako sailaren barnean daude: “Walking with Dinosaurs”, “Tarzan”, “The Nut Job” eta “L’extravagant voyage du jeune et prodigieux T. S. Spivet” (iaz Sail Ofizialean aurkeztu zen filmaren itzulpena). Azkenik, euskara gaztelera zein frantsesarekin nahasten dituzten beste hiru film daude euskal ekoizpeneko zinemari eskainitako Zinemira sailean: “Ateak zabalduz”, “Los tontos y los estúpidos” eta “Notas en movimiento”. Amaitzeko, euskarazko azpitoluak zein azpitolu elektronikoak ditzuzten film batzuk ere badaude.